



BIOKIMIKAKO ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUA

Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Bigarren mailako ikaslearen gida

(2014/2015)

Edukien taula

| | |
|---|----------|
| 1.- BIOKIMIKAKO ETA BIOLOGIA MOLEKULARREKO GRADUARI BURUZKO INFORMAZIOA..... | 3 |
| GRADUKO IKASKETEN EGITURA | 3 |
| SEGURTASUNA | 4 |
| 2.- 47 TALDEARENTZAKO INFORMAZIO ESPEZIFIKOA..... | 5 |
| ORDUTEGIA..... | 5 |
| TALDEKO IRAKASLEAK | 7 |
| INFORMAZIO OSAGARRIA | 8 |
| 3.- BIGARREN MAILAKO IRAKASGAIEI BURUZKO INFORMAZIOA | 9 |

Gida hau
Biokimika eta Biologia Molekularreko Graduako
Ikasketa Batzordeak (CEGBQBM) egin du

1.- Biokimikako eta Biologia Molekularreko Graduari buruzko informazioa

Graduko ikasketen egitura

Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua 4 mailatan dago banatuta (bakoitza 60 ECTSkoa). Lehenengo ikasturtean, ondorengo biokimikako espezializazioaren oinarri zientifiko eta biologiko nagusiak ezartzen dira. Bigarren eta hirugarren mailetan, ikasleak izaki bizidunen funtzionamendua organismoko molekulen ikuspuntutik ulertzeko, aztertze eta interpretatzeko beharrezko prestakuntza jasotzen du. Laugarren mailan, azkenengoan, ikasleak biokimikako eta biologia molekularreko alderdi aurreratuagoetan sakontzeko aukera du eta baita gaiaren esparru profesionalean ere, bereziki, Gradu Amaierako Lanaren eta hautazko irakasgaien bidez.

| Maila | Lauhilekoa | Irakasgaia | ECTS |
|-------|-------------|---|------|
| 2.a | 1.a | Genetika | 6 |
| | | Mikrobiologia | 6 |
| | | Termodinamika eta Zinetika Kimikoa | 6 |
| | | Makromolekulen Biosintesia eta Erregulazioa | 6 |
| | | Metabolismoaren Erregulazioa | 6 |
| | 2.a | Immunologia | 6 |
| | | Teknika Instrumentalak | 6 |
| | | DNA Birkonbinatuaren Teknologia | 6 |
| | | Proteomika eta Proteinen Egitura eta Ingeniaritza | 6 |
| | | Zelulen Señaleztapena | 6 |
| 3.a | 1.a | Animalien Fisiologia | 6 |
| | | Landareen Fisiologia | 6 |
| | | Giza Genetika | 6 |
| | | Biologia Molekularreko Metodoak | 6 |
| | | Biofisika | 6 |
| | 2.a | Zuzenbidea eta Etika Biozientzietan | 6 |
| | | Biokatalisia | 6 |
| | | Biomolekulen Espektroskopia | 6 |
| | | Bioinformatika | 6 |
| | | Biokimika Klinikoa eta Patologia Molekularra | 6 |
| 4.a | Urte osokoa | Hautazko Irakasgaiak (8) | 4,5 |
| | | Gradu Amaierako Lana | 12 |
| | 1.a | Biokimikako Metodo Aurreratuak | 6 |
| | 2.a | Biologia Estrukturala: Aplikazio Biomedikoak | 6 |

Segurtasuna

Jarduera akademikoan hartu beharreko segurtasun neurriak

Oro har, ikasle orok bere inguruan dauden segurtasun elementuetara ohitu behar du (su itzalgailuak, mahukak, segurtasun dutexak eta begiak garbitzekoak non dauden jakin behar du).

Ikasle guztiek ezagutu behar dituzte larrialdietarako irteera nagusiak. Gainera, irteera horiek errespetatu egin behar dira eta horietan oztopo izango den elementurik egotea saihestu behar da.

Laborategiko praktikak, tailerrak eta landa lanak egin bitartean, horietaz arduratzen diren irakasleek Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Printzipioak aplikatuko dituzte, baita praktiketan jardunbide egokien kodigoak betetzen direla zaindu ere.

Laborategirako sarbidea mugatua izango da eta irakasle arduradunek kontrolatuko dute.

Norbera babesteko ekipamenduen erabilera (NBE)

Laborategiko praktiketan ezinbestekoa da bata erabiltzea. Ikaslea arduratuko da bata erosteaz. Ikastegiko Atezaintza Zerbitzuan erabilera bakarreko bata eskura daitezke, aurrez ordainduta.

Irakasleek hala eskatuz gero, segurtasun betaurrekoak erabili beharko dira.

Ikasleak arduratuko dira norbera babesteko ekipa hau erosteaz.

Beharrezkoa izanez gero, erabili eta botatzeko eskularruak banatuko dira produktu arriskutsuekin lan egiterakoan eskuak babesteko.

2.- 47 taldearentzako informazio espezifikoa

Ordutegia

1. Lauhilekoaren ordutegia:



HORARIO 2014 ORDUTEGIA



Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua/Grado en Bioquímica y Biología Molecular

Kurtsoa/Curso: 2
 Taldea/Grupo: 47

Zikloa/Ciclo: X
 Lauhilebetea/Cuatrimestre: 1

| | Lunes - Astelehena | Martes - Asteartea | Miércoles - Azteazkena | Jueves - Osteguna | Viernes - Ostirala |
|----------------|--|--|---|--|---|
| 8:40 9:30 | MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] | GENE (GL1) [2] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [12] | GENE (GL3) [4] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [12] | GENE (GL3) [2] MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [3] | MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [2] |
| 9:40 10:30 | MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] MBE (GO1) [7] | GENE (GL1) [2] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [12] GENE (GL1) [6-10] (1/2) GENE (S1) [4] | GENE (GL3) [4] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [12] MIKR (S1) [13, 15] | GENE (GL3) [2] MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [3] GENE (GL1) [3] GENE (GL3) [6-10] (1/2) | MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [2] |
| 10:40 11:30 | MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] MBE (GO1) [7] | MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [12] GENE (GL1) [6-10] (1/2) GENE (S1) [4] GENE (S1) [2] | GENE (GL3) [4] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [12] MIKR (S1) [13, 15] MIKR (S1) [7] | MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [3] GENE (GL1) [3] GENE (GL3) [6-10] (1/2) | MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [2] |
| 12:00 12:50 | MBE (GO1) [7] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] | GENE (GL1) [6-10] (1/2) GENE (S1) [2, 4] MET.ER (GL2) [5] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [12] | | GENE (GL1) [3] GENE (GL3) [6-10] (1/2) MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL3) [3] | MET.ER (GL1) [4] MIKR (GL1) [11] MIKR (GL3) [9] TDZK (GL1) [2] |
| 13:00 13:50 | | | | TDZK (GL3) [3] | |
| 14:00 14:50 | MIKR (T) [1-6, 8-12, 14] <1.8> | GENE (T) <1.8> | MIKR (T) [1-6, 8-12, 14] <1.8> | GENE (GA1) [3-12] (1/3), 14) <1.8> GENE (T) [1-2, 4-5, 7-8, 10-11, 13] <1.8> | MIKR (T) [1-6, 8-12, 14] <1.8> |
| 15:00 15:50 | MET.ER (GA1) [12-13] MET.ER (S1) [14-15] MET.ER (T) [1-11] <1.8> | MET.ER (GA1) [12-13] MET.ER (S1) [14-15] MET.ER (T) [1-11] <1.8> | GENE (T) <1.8> | MET.ER (GA1) [12-13] MET.ER (T) [1-11] <1.8> | MET.ER (GA1) [12-13] MET.ER (T) [1-11] <1.8> |
| 15:55 16:45 | TDZK (T) <1.8> | MBE (S1) [14-15] <1.8> MBE (T) [1-13] <1.8> | MBE (GA1) [4-13] <1.8> MBE (T) [1-3] <1.8> | MBE (T) [1-13] <1.8> | |
| 17:00 17:50 | MBE (S1) [14-15] <1.8> MBE (T) [1-13] <1.8> | TDZK (GA1) <1.8> | TDZK (T) <1.8> | TDZK (T) [2-14] (1/2) <1.8> | |
| 17:55 18:45 | | | | | |
| 18:50 19:40 | | | | | |

| | ASIGNATURA/IRAKASGAIA | PROFESOR/IRAKASLEA |
|--------|---|--|
| MIKR | 26713 Mikrobiologia | MARIA BEGOÑA AYO |
| MBE | 26720 Makromolekulen Biosintesia eta Erregulazioa | MIREN JOSU OMAETXEBARRIA |
| MET.ER | 26856 Metabolismoaren Erregulazioa | MERCEDES MARTINEZ |
| TDZK | 26715 Termodinamika eta Zinetika Kimikoa | MAITANE OLIVARES, MARIA TERESA ARBELOA |
| GENE | 26714 Genetika | MIREN ANDONE ESTOMBA |

Acrónimo asignatura / Irakasgaiaren akronimoa
 (M) (T) Teoría, (GA) (PA) Prácticas aula, (GL) (PL) Laboratorio, (GO) (PO) Ordenador, (S) Seminario
 (M) (T) Teoría, (GA) (PA) Irakasgelako praktikak, (GL) (PL) Laborategia, (GO) (PO) Ordenagailua, (S) Mintegia
 Semanas / Asteak
 Semanas 1 de cada 2 / 2 astero 1. astea
 | Aula / Irasgelak
 ASIG (M) [1-10] (1/2) <1.1>

2. Bigarren lauhilekoaren ordutegia:

Biokimikako eta Biología Molekularreko Gradua/Grado en Bioquímica y Biología Molecular

Kurtsoa/Curso: 2
 Taldea/Grupo: 47

Zikloa/Ciclo: X
 Lauhiletebetea/Cuatrimestre: 2

| | Lunes - Astelehena | Martes - Asteartea | Miércoles - Azteazkena | Jueves - Osteguna | Viernes - Ostirala |
|----------------|--|--|--|--|------------------------------------|
| 8:40 9:30 | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] T.INS (GL3) [21, 22] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] T.INS (GL3) [21, 22] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] |
| 9:40 10:30 | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] DNA.BT (GO1) [26] PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL3) [21-22] T.INS (GO1) [25] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL3) [21-22] T.INS (GO1) [25] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] |
| 10:40 11:30 | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] DNA.BT (GO1) [26] PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL3) [21-22] T.INS (GO1) [25] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20-21] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL3) [21-22] T.INS (GO1) [25] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] DNA.BT (GO1) [26] DNA.BT (S1) [28] | INMU (GL1) [24] INMU (GL3) [27] |
| 12:00 12:50 | PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL1) [20-21] T.INS (GL3) [21] | DNA.BT (GO1) [26] PROT (GO1) [18, 28] T.INS (GL1) [20-21] T.INS (GL3) [21] T.INS (GO1) [25] | | DNA.BT (GO1) [26] T.INS (GL1) [20] T.INS (GL3) [21-22] | |
| 13:00 13:50 | | | | | |
| 14:00 14:50 | PROT (GA1) [22-24] PROT (T) [16-21, 25-30] | ZEL.SEIN (T) | ZEL.SEIN (GO1) [26-30] ZEL.SEIN (T) [16-25] | ZEL.SEIN (GA1) [16-25] ZEL.SEIN (S1) [26-30] | |
| 15:00 15:50 | INMU (S1) [20-21, 25-26, 28-29] INMU (T) [16-19, 22-24, 27-30 {1/3}] | PROT (GA1) [22-23] PROT (T) [16-21, 24-30] | PROT (GA1) [22-23] PROT (T) [16-21, 24-30] | ZEL.SEIN (T) | |
| 15:55 16:45 | PROT (GA1) [28-30] T.INS (T) [16-27] | INMU (T) | INMU (T) | T.INS (S1) [28-30] T.INS (T) [16-26] | |
| 17:00 17:50 | DNA.BT (T) | T.INS (S1) [28-30] T.INS (T) [16-27] | DNA.BT (T) | DNA.BT (GA1) [19-25] {1/2} DNA.BT (T) [16-26 {1/2}, 17, 27-29] | |
| 17:55 18:45 | | | | | |
| 18:50 19:40 | | | | | |
| | ASIGNATURA/IRAKASGAIA | | PROFESOR/IRAKASLEA | | |
| INMU | 25266 | Immunologia | JESUS MARIA ARIZMENDI, MIREN JOSU OMAETXEBARRIA CESAR AUGUSTO MARTIN, GUIOMAR PEREZ DE NANCLARES | | |
| T.INS | 25267 | Teknika Instrumentalak | | | |
| DNA.BT | 26722 | DNA Birkonbinatuaren Teknologia | JESUS MARIA ARIZMENDI, JOSE LUIS NIEVA | | |
| PROT | 26858 | Proteomika eta Proteinen Egitura eta Ingeniaritza | | | |
| ZEL.SEIN | 26855 | Zelulen Seinaleztapena | ARKAITZ CARRACEDO | | |

Acrónimo asignatura / Irakasgaiaren akronimoa
 (M) (T) Teoría, (GA) (PA) Prácticas aula, (GL) (PL) Laboratorio, (GO) (PO) Ordenador, (S) Seminario
 (M) (T) Teoría, (GA) (PA) Ikasgelako praktikak, (GL) (PL) Laborategia, (GO) (PO) Ordenagailua, (S) Mintegia
 Semanas / Asteak
 Semana 1 de cada 2 / 2 astero 1. astea
 Aula / Ikasgela
 ASIG (M) [1-10] {1/2} <1.1>

Taldeko irakasleak

| IRAKASGAIA | IRAKASLEA (saila) | Telefonoa e-maila | Bulegoa |
|---|--|---|-----------|
| GENETIKA | Andone Estonba (Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia) | 94 601 5517 andone.estonba@ehu.es | F1.P0.7 |
| MIKROBIOLOGIA | Begoña Ayo (Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia) | 94 601 5397 begona.ayo@ehu.es | CD5.P0.5 |
| TERMODINAMIKA ETA ZINETIKA KIMIKOA | Fernando Mijangos (Kimika Fisikoa) | 94 601 2709 fernando.mijangos@ehu.es | |
| | Francisco Basterretxea (Kimika Fisikoa) | 94 601 2532 franciscojose.basterretxea@ehu.es | |
| | Maitane Olivares (Kimika Analitikoa) | 94 601 5504 maitane.olivares@ehu.es | CD1.P0.14 |
| MAKROLEKULEN BIOSINTESIA eta ERREGULAZIOA | Miren Josu Omaetxebarria (Biokimika eta Biologia Molekularra) | 94 601 2287 mirenjosu.omaetxebarria@ehu.es | CD4.P0.12 |
| METABOLISMOAREN ERREGULAZIOA | Mercedes Martinez Bilbao (Biokimika eta Biologia Molekularra) | 94 601 3372 mercedes.martinezb@ehu.es | CD4.P0.4 |
| IMMUNOLOGIA | Andoni Ramirez (Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia) | 94 601 5090 andoni.ramirez@ehu.es | CD5.P0.6 |
| TEKNIKA INSTRUMENTALAK | Jesus M. Arizmendi (Biokimika eta Biologia Molekularra) | 94 601 2615 jm.arizmendi@ehu.es | CD4.P0.3 |
| DNA BIRKONBINATUAREN TEKNOLOGIA | César Martín (Biokimika eta Biologia Molekularra) | 94 601 8053 cesar.martin@ehu.es | CD4.P0.12 |
| PROTEOMIKA ETA PROTEINEN EGITURA ETA INGENIARITZA | Jesus M. Arizmendi (Biokimika eta Biologia Molekularra) | 94 601 2615 jm.arizmendi@ehu.es | CD4.P0.3 |
| | Jose Luis Nieva (Biokimika eta Biologia) | 946 01 3353, 3429 joseluis.nieva@ehu.es | CD4.P0.2 |

| | | | |
|---------------------------|---|--|--|
| | Molekularra) | | |
| ZELULEN SEINALEZTAPENA | Arkaitz Carracedo (Biokimika eta Biologia Molekularra) | arkaitz.carracedo@ehu.es | |

Informazio osagarria

Koordinatzaileak:

2. mailako koordinatzailea: Jesus Maria Arizmendi (Biokimika eta Biologia Molekularreko Saila)
jm.arizmendi@ehu.es 946 01 2615, CD4.P0.3.

Laborategiko praktiken koordinatzailea: Sonia Bañuelos (Biokimika eta Biologia Molekularreko Saila)
sonia.bañuelos@ehu.es

PAT koordinatzailea: Juan Manuel Gonzalez Mañas (Biokimika eta Biologia Molekularreko Saila)
juanmanuel.gonzalez@ehu.es 946 01 5379, CD4.P0.5.

Biokimika eta Biologia Molekularreko Graduoko koordinatzailea: Mercedes Martinez Bilbao (Biokimika eta Biologia Molekularreko Saila) mercedes.martinezb@ehu.es 946 01 3372, CD4.P0.4.

3.- Bigarren mailako irakasgaiak buruzko informazioa

Lehenengo lauhilekoko irakasgaiak:

Genetika (GENE)

Mikrobiologia (MIKR)

Termodinamika eta Zinetika Kimikoa (TDZK)

Makromolekulen Biosintesia eta Erregulazioa (MBE)

Metabolismoaren erregulazioa (MET.ER)

Bigarren lauhilekoko irakasgaiak:

Immunologia (INMU)

Teknika Instrumentalak (T.INS)

DNA Birkonbinatuaren Teknologia (DNA.BT)

Proteomika eta Proteinen Egitura eta Ingeniaritza (PROT)

Zelulen Seinaleztapena (ZEL.SEIN)

| | | |
|---|--|---------------------------|
| IRAKASKUNTZA-GIDA | | 2014/15 |
| Ikastegia | 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Ziki. Zehaztuqabea |
| Plana | GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua | Ikastaroa 2. maila |
| IRAKASGAIA | | |
| 26714 - Genetika | | ECTS kredituak: 6 |
| GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK | | |
| <p>GAITASUNAK</p> <p>1.- Konprenitu herentzia-mota desberdinen oinarriak, eta oinarriok erabiltzen jakin ezaugarri jakinen transmisioa ezartzeko.</p> <p>2.- Ezagutu informazio genetikoaren adierazpenean zer-nolako eragina duen bai geneen arteko elkarrenergina zein ingurumenarekiko ere, eta berau erabiltzen jakin genotipo-fenotipo erlazioa ezartzeko.</p> <p>3.- Ikasi artikulua zientifiko bat argitaratzeko bete beharreko urrats gakoak nola ematen diren, diseinu esperimental bat eginez eta eskuratutako emaitzen interpretazioa burutuz ondoko ikerketa-proiektu bideratuan: bi ezaugarri fenotipikoaren herentzia-eredua ezarri <i>Drosophila melanogaster</i> organismo-ereduan.</p> <p>4.- Prestatu elkarlanean aritzeko, problemen ebazpena, ikerketa bideratua eta laborategiko praktikak talde kooperatiboetan eginik.</p> <p>5.- Eskuratutako informazioa eraginkorki erabiliaz, ondorio baliagarriak modu kritikoan garatu.</p> | | |
| GAI ZERRENDA | | |
| <p>IKASGAI TEORIKOAK</p> <p>1. GAIA Genotipoa eta Fenotipoa elkarlotu nahian: informazio genetikoaren transmisioa eta adierazpena.</p> <p>ZATIKETA ZELULARRA, KROMOSOMAK ETA HERENTZIAREN OINARRIZKO KONTZEPTUAK</p> <p>2. GAIA Zelula-zatiketa eta Kromosomen topografia. Zelula-zikloa. Mitosia eta edukin kromosomikoaren topografia. Meiosis eta ugalketa sexuala.</p> <p>3. GAIA Gene bakarraren herentzia. Herentzia mendelianoa. Mendel-en metodo esperimentalak. Gene autosomikoak: gurutzamendu monohibridoak; aleloen segregazio balioak. Dominantzia eta errezesibitatea; Punnett taulak; Ezaugarri bakarreko aproba-gurutzamendua. Datu genetikoaren ebaluazioa: chi karratuaren analisia. Probabilitatea eta gertaera genetikoak. Giza-pedigrien analisia.</p> <p>4. GAIA Gene bakarraren herentzia; oinarriak. Herentzia mendelianoaren hedapena. (a) Sexuarekiko lotura osoa: kromosoma sexualetan lekutatutako geneak. Giza-pedigrien analisia. (b) Herentzia uniparentala: genoma zitoplasmikoetan lekutatutako geneak (mitokondriak eta kloroplastoak). Herentziaren teoria kromosomikoa.</p> <p>5. GAIA Gene anitz independenteen herentzia. Gurutzamendu dihibrido eta polihibridoak: kromosoma desberdinetan kokatutako geneen segregazio independentea. Aproba-gurutzamendua gene anitzekin. Diagrama adartsuak. Teorema polinomiala.</p> <p>6. GAIA Kromosoma berdinean lekutatutako geneen lotura osoa eta partziala. Errekonbinazio-maiztasunaren bidezko mapaketa genetikoak. Hiru puntuetako mapaketa. Interferentzia eta kointzidentziaren koefizienteak. Mapa kromosomikoa.</p> <p>ELKARRERAGINA GENIKOA ETA ADIERAZPEN FENOTIPIKOA</p> <p>7. GAIA Elkarreragina alelikoa eta genikoa. Gene bat-entzima bat. Elkarrekintza alelikoa: dominantzia osoa, dominantzia ez-osoak eta kodominantzia. Alelismo anizkoitza, gene letalak. Pleiotropia. Elkarreragina genikoa: epistasia, fenotipo berrien azalpena. Osagarritasunaren analisia.</p> <p>8. GAIA Adierazpen fenotipikoaren aldakortasuna: sarkortasun ez-osoak eta adierazpen aldakorra. Hondo genetikoaren eragina eta Ingurumenaren eragina. Herentzia epigenetikoa: parentalen inpronta, X kromosomaren inaktibazioa eta minbizia. Sexuak eraginiko eta sexuak mugatutako herentzia.</p> | | |

9. GAIA Elkarreragina genikoa eta aldakuntza jarraitua: genetika kuantitatiboa, poligeneak, alelo batukorrak. Oinarriko analisi estatistikoa. Bariantza fenotipikoaren osagaiak. Heredagarritasuna.

KROMOSOMEN ALDAKORTASUNA EUKARIOTOETAN

10. GAIA. Aldakortasuna kromosomen egiturari. Mekanismoak eta tipoak. (a) Delezioak (b) Duplikazioak (c) Inbertsioak: perizentrikoak eta parazentrikoak (d) Translokazioak.

11. GAIA Aldakortasuna kromosomen kopuruan. (a) Euploidia: monoploideak, diploideak, poliploideak. Autopoliploidia eta alopoliploidia (anfidiploideak) (b) Aneuploidia: nulisomiak, monosomiak, trisomiak. (c) aneuploide somatikoak: mosaikoak vs. kimerak.

POPULAZIOEN ANALISI GENETIKOA

12. GAIA. Populazioen genetika. Populazio panmiktikoa. Maiztasun aleliko eta genotipikoak. Hardy-Weinberg oreka. Gurutzamendu ez-aleatorioak: odolkidetasuna. Maiztasun genikoak aldatzen dituzten prozesuak: mutazioa, migrazioa, jito genikoa: botila-zama eta fundazio-efektua. Hautespen naturala, fitness eta maiztasun alelikoen aldaera.

ANALISI GENETIKOA BAKTERIO ETA BAKTERIOFAGOETAN

13. GAIA Analisi genetiko bakterioetan. Errekonbinazioa bakterioetan. Transferentzia genetikoaren mekanismoak: (a) Konjugazioa: F+ eta Hfr anduiak. F' faktorea eta sexduzioa (b) Transformazioa: faseak (c) Transduzio orokorra eta mugatua. Mapa genetikoaren eraikuntza bakterioetan. Bakteriofagoen genetika.

IKASgai PRAKTIKOAK ETA MINTEGIAK

P1- Giza kariotipoaren behaketa eta analisisa
M1- Aholkularitza genetikoaren kasu praktiko bat

P2- Mutanteak aztertzen Drosophilan
M2- Diseinu esperimentalaren egiten bi ezaugarri fenotipikoen herentzia ezartzeko Drosophilan
P3- Gurutzamendu bideratuak eta deszendentziaren analisi fenotipikoa egiten Drosophilan
P3.1 Parentalen fenotipoa behatu eta P x P gurutzamendua egiten
P3.2 P belaunaldiaren deusezteak
P3.3 F1 belaunaldiaren behaketa eta F1 x F1 gurutzamendua egiten
P3.4 F1 belaunaldiaren deusezteak
P3.5 F2 belaunaldiaren behaketa, segregazio hipotesia eta baieztapen estatistikoa

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|----|----|----|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 35 | 5 | 5 | 15 | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 55 | 15 | 15 | 5 | | | | | |

Legenda:

M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako o. GL: Laborategiko o. GO: Ordenagailuko o.
 GCL: P. klinikoa TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa o.

Argibideak:

METODOLOGIA

Ikasgaiak dozentzia-modalitate desberdinak barneratzen ditu.

-Eskola magistralen bidez kontzeptu teorikoak eta problemak azalduko dira.

-Bestalde, problemen ebazpena, ikerketa bideratua, laborategiko praktikak eta mintegiak talde kooperatiboetan egingo dira. Bertan, ezaugarri fenotipikoen transmisioa eta adierazpena ebazteko kasu praktiko batekin aurkituko da ikasle-taldea, non, ondorioetara heltzeko, diseinu esperimentalaren egin beharko duen, hipotesiak eraikitzen ihardun eta emaitzak interpretatzen ikasiko baitu. Genetika-aholkularitza ere ihardungo du ikasle-taldeak.

EBALUAZIOA



- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Test motako azterketa idatzia
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Taldeko lanak

Argibideak:

EBALUAZIOA

Ebaluazio-sistemak zera barneratzen du: (1) idatzitako amaierako bakar-proba, non test-galderak, galdera laburrak eta problemak ebatzi beharko baitu ikasleak (azken notaren %60a). Atal bakoitzeko gutxienez 4,0 bat ateratzea behar da ikasgaia aprobatzeko; (2) idatzitako talde-probak, non problema teorikoak zein praktikoak ebatzi beharko baitu ikasle-taldeak (azken notaren %20a) eta (3) egindako lan esperimentalari dagozkion talde-txostenak (azken notaren %20a). Azken bi talde-ekintzetan gutxienezko %80ko partaidetza eskatzen zaio ikasle bakoitzari, eta bai taldeari 5eko nota ikasgaia aprobatzeko ere. Talde-ekintzen nota ez-ohiko deialdi bakar baterako gordeko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak ONDOKO MATERIALA ESKAINIKO DIO IKASLEARI (<http://moodle.ehu.es/moodle>)

TEORIA ESKEMA/IRUDI BILDUMA eskola magistralen jarraipena errazteko.

PROBLEMA BILDUMA. Bilduma honetan oinarriturik, ikasgelan zenbait problema azalduko dira, gainerakoak lan pertsonala eta talde-lana egiteko material gisa erabiliko dira.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROTOKOLOAK. Bertan, laborategian bete behar diren urrats esperimentalak deskribatzeaz gain, praktika bakoitzak duen helburua eta bere oinarri teorikoak azaltzen dira. Praktika egin aurretik, nahitaezkoa da protokoloaren irakurketa, modu autonomoan egin behar baitituzue praktika bakoitzari dagozkion eginkizunak.

MINTEGIETARAKO PROTOKOLOAK, praktiken protokoloarekin batera eskainiko da. Honetaz gain, mintegi bakoitzak beharko lukeen dokumentazio espezifiko saioan bertan banatuko da.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA INGELESEZ ETA GAZTELANIAZ

- BENITO C (2012) Genética. Conceptos esenciales. Editorial Panamericana (ISBN-978-84-9835-407-2)
- BROOKER R.J. (2011) Genetics. Analysis & Principles. 4th edition McGraw Hill (ISBN-13 9780073525280)
- GRIFFITHS, ANTHONY J.F. WESSLER, SUSAN R., LEWONTIN, RICHARD C., CARROLL, SEAN B. (2008) Genética. 9ª edición. McGraw-Hill-Interamericana
- GRIFFITHS A.J.F., WESSLER S.R., LEWONTIN R.C., GELBART W. CARROLL, SEAN B. (2010) An introduction to genetic analysis. 10th edition. FREEMAN AND CO (978-1429229432) <http://bcs.whfreeman.com/iga9e/>
- HARTL D.L., JONES E.W. (2011) Genetics. Analysis of Genes and Genomes. Jones and Bartlett Publishers 8/e. (ISBN: 978-1449635962)
- HARTWELL L, HOOD L., GOLDBERG L., REYNOLDS AE, SILVER LM, VERES RC (2010) Genetics. From Genes to Genomes. 4th edition. McGraw-Hill (ISBN-9780073525266)
- KLUG WS, CUMMINGS MR, SPENCER C A (2006) Conceptos de Genética. Pearson Prentice Hall: 8/e: www.librosite.net/klug
- KLUG WS, CUMMINGS MR, SPENCER C A, PALLADINO M.A. (2013) Conceptos de Genética 10/e. Pearson (978-84-1555-249-9)
- PIERCE BA (2011) Genetics: A Conceptual Approach Freeman & Company. 4/e (ISBN-10: 1429232501)
- PIERCE B.A. (2009) Genética. Un enfoque conceptual. Editorial Panamericana www.whfreeman.com/pierce3e
- PIERCE B.A. (2011) Fundamentos de Genética. Conceptos y relaciones. Editorial Panamericana www.whfreeman.com/pierce3e

Gehiago sakontzeko bibliografia

PROBLEMA-ZERRENDAK DITUZTEN LIBURUAK INGELESEZ ETA GAZTELANIAZ

- BENITO JIMENEZ, C. (1997) 360 Problemas resueltos paso a paso. Ed. Síntesis
- CONKITE, D. (2008) A problem-based guide to Basic Genetics. Ed. Thomson.
- MENSUA J. L. (2003) Genética. Problemas y ejercicios resueltos. Ed Pearson

- .- STANSFIELD, W.D. (1984) Genética. Teoría y 440 problemas resueltos. Ed. MacGraw-Hill (2ª edición)
- .- VISERAS ALARCON, E. (1990) Problemas resueltos de Genética General. Ed. Universidad de Granada.

Aldizkariak

Elhuyar (<http://www.zientzia.net/elhuyar.asp>)
Nature Review Genetics
Nature
Science

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.zientzia.net/>
<http://teknopolis.elhuyar.org/>
<http://www.ucm.es/info/genetica/grupod/index.htm>
<http://www.segenetica.es/docencia.php>
<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/sites/entrez?db=omim>
<http://www.biologia.arizona.edu/mendel/mendel.html>
http://www.biologia.arizona.edu/human/human_bio.html
<http://www.genome.gov/sglossary.cfm>

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|--|------------------------|---------------------|----------------------|-----------|-----------|------------|-----------|-----------|------------|--------------|-------------|---------------|---------------------|----------------------|------------------|--------------|-----------------|---------------|--|
| IRAKASKUNTZA-GIDA | | 2014/15 | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Ikastegia | 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Zikl. | Zehaztuqabea | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Plana | GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua | Ikastaroa | 2. maila | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| IRAKASGAIA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 26713 - Mikrobiologia | | ECTS kredituak: | 6 | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| <p>Gaitasun espezifikak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Mikrobiologiaren oinarriko alderdi teorikoak ezagutzea bi helburu nagusiri begira: Biosferaren mantenimenduan mikroorganismoen garrantzia ulertzea eta munduko gaur egungo arazoen konponketarako mikroorganismoen erabilera ezagutzea. 2. Prokariotoen morfologia, egiturak, energia lortzeko jarduerak eta hazkuntza analizatzea, beraien portaera naturan ulertzeko. 3. Esterilizazio, desinfekzio eta antisepsia kontzeptuak bereiztea, eta mikroorganismoen hazkuntza kontrolatzeko nola erabiltzen diren ezagutzea. 4. Lagin mikrobiologikoekin lan egiteko oinarriko teknikak ezagutzea eta erabiltzea: laginen manipulazioa, eta mikroorganismoen detektzioa, isolaketa eta identifikazioa. 5. Mikroorganismoekin lan egiteko segurtasun arauak ikastea, hondakin biologikoen manipulazio eta ezabapenaren aspektu praktikoak barne. <p>Zeharkako gaitasunak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Analisi, sintesi, antolaketa eta plangintza gaitasunak garatzea. 2. Pertsonen arteko harremanen gaitasuna garatzea, taldeko lana hobetzeko. 3. Arrazoibide zuhur eta kritikoa lantzea. 4. Ikaskuntza autonomoa ahalbidetuko duten tresnak eskuratzea. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| GAI ZERRENDIA | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| <p>Eskola teorikoa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Mikroorganismoen mundua: sarrera. 2. Mikroorganismo prokariotoen egitura eta funtzioa. 3. Prokariotoen elikadura-aniztasuna. 4. Mikroorganismoen metabolismo: sarrera 5. Kimioorganotrofia. 6. Kimiolitotrofia eta fototrofia. 7. Nitrogeno, sufre eta fosforoaren asimilazioa. 8. Mikroorganismoen hazkuntza kontrolpeko baldintzetan. 9. Mikroorganismoen hazkuntza ingurune naturalean. 10. Mikroorganismoen kultiboa eta kontrola. 11. Prokariotoen arteko material genetikoaren elkartrukea. <p>Eskola praktikoa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. C2 motako laborategian agente biologikoekin lan egiteko oinarriko jarraibideak. 2. Kultibo medioak eta mikroorganismoen metabolismo. 3. Mikroorganismoen ubikuotasuna. 4. Mikroorganismoen ereinketa. 5. Mikroorganismoen behaketa. 6. Bakterio-egituren behaketa. 7. Mikroorganismoen zenbaketa. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| IRAKASKUNTZA MOTAK | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| | Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA | | | | | | | | | | |
| | Ikasgelako eskola-orduak | 35 | 5 | | 20 | | | | | | | | | | | | | | | |
| | Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 52,5 | 7,5 | | 30 | | | | | | | | | | | | | | | |
| Legenda: <table> <tr> <td>M: Maistrala</td> <td>S: Minteioa</td> <td>GA: Gelako o.</td> <td>GL: Laborategiko o.</td> <td>GO: Ordenagailuko o.</td> </tr> <tr> <td>GCL: P. klinikak</td> <td>TA: Tailerra</td> <td>TI: Tailer Ind.</td> <td>GCA: Landa o.</td> <td></td> </tr> </table> | | | | | | | | | | | M: Maistrala | S: Minteioa | GA: Gelako o. | GL: Laborategiko o. | GO: Ordenagailuko o. | GCL: P. klinikak | TA: Tailerra | TI: Tailer Ind. | GCA: Landa o. | |
| M: Maistrala | S: Minteioa | GA: Gelako o. | GL: Laborategiko o. | GO: Ordenagailuko o. | | | | | | | | | | | | | | | | |
| GCL: P. klinikak | TA: Tailerra | TI: Tailer Ind. | GCA: Landa o. | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Argibideak:

Praktikak derrigorrez egin beharko dira.

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

Ikasleen kalifikazioa osatzeko ikasleek egindako jarduera guztiak kontuan hartuko dira:

| JARDUERA | Kalifikazioaren portzentaia |
|------------------------|------------------------------|
| Irakaskuntza teorikoa | %60 (gutxienezko nota: 5/10) |
| Irakaskuntza praktikoa | %20 (gutxienezko nota: 5/10) |
| Mintegiak | %20 |
| Guztira | %100 |

Irakaskuntza teorikoaren ebaluazioa (%60, gutxienezko nota: 5/10) galdera motzez osatutako azterketa teoriko bakarren bitartez egingo da. Galderak kalifikatuko dira honako irizpide hauek kontuan hartuta: erantzunaren zuzentasuna eta zehaztasuna, laburbiltzeko gaitasuna, adierazteko argitasuna, eta gramatika zein ortografia-egokitasuna, bereziki mikroorganismoen izenak idazteko orduan kontuan hartzen. Azterketa gaiditzeko irakasgai osoaren ezagupen orekatua eskatuko da.

Irakaskuntza praktikokoaren ebaluazioa (%20, gutxienezko nota: 5/10) bi atalez osatuta egongo da: 1) lortutako abilezien ebaluazioa, azterketa praktikoa baten bidez; 2) ikasitako kontzeptuen aplikazioaren ebaluazioa, idatzitako galde-sortaren bidez.

Mintegiaren ebaluazioa (%20) honako irizpide hauek kontuan hartuta egingo da: 1) edukinaren egokitasuna; 2) ahozko aurkezpenaren kalitatea, baita informazio-igorpenaren eraginkortasuna ere.

Ebaluazioa jarraia da, eta azkeneko emaitza ateratzen da 3 jarduera posibleetan (azterketa teorikoa, praktikak, mintegia) lortutako kalifikazioen batuketatik.

Irakasgaia ohiko deialdian ez gaiditzekotan, praktiketan eta mintegian lortutako notak ezohiko deialdirako gordeko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Praktiketarako protokoloa, laborategiko mantala, errotuladore iraunkorra.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Madigan, M.T.; Martinko, J.M.; Parker, J. (2007). Brock Mikroorganismoen Biologia. 9. argitaldiaren itzulpena (euskaraz). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. ISBN: 978-84-9860-026-1
- Madigan, M.T.; Martinko, J.M.; Dunlap, P.V.; Clark, D.P. (2009). Biología de los Microorganismos de Brock. 12. arg. (gaztelaniaz). Pearson-Prentice Hall, Madrid. ISBN: 978-84-7829-097-0
- Madigan, M.T.; Martinko, J.M.; Stahl, D.; Clark, D.P. (2010). Brock Biology of microorganisms. 13. arg. (ingelesez). Pearson-Benjamin Cummings, Madrid. ISBN: 978-03-2164-963-8
- Wiley, J.M.; Sherwood, L.M.; Woolverton, C.J. (2009). Microbiología de Prescott, Harley y Klein. 7. arg. (gaztelaniaz). MacGraw-Hill. Interamericana. ISBN: 978-84-4816-827-8
- Tortora, G.J.; Funke, B.R.; Case, C.L. (2007). Introducción a la Microbiología 9. arg. (gaztelaniaz). Editorial Médica Panamericana, Madrid. ISBN: 978-95-0060-740-7

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

- Investigación y Ciencia.
- Nature Reviews Microbiology

ELHUYAR zientzia eta teknologia

Interneteko helbide interesgarriak

- Brock-erako sarbidea:
<http://www.aw-bc.com/brock/>
- Prescott-erako sarbidea:
http://highered.mcgraw-hill.com/sites/0072556781/student_view0/
- "ON-line" dauden zenbait liburutarako sarbidea: Microtextbook <http://www.microbiologytext.com/>
- The Microbe World:
<http://www.microbeworld.org/>
- MicrobeWiki (Mikrobiologiari buruzko zenbait aspektu interesgarri, "wiki" eran): <http://microbewiki.kenyon.edu>
- D. Kunkel-ek egindako mikroorganismoen argazkiak: <http://www.denniskunkel.com/>
- MicrobiologyBytes.
<http://www.microbiologybytes.com/>

| | | |
|---|--|---------------------------|
| IRAKASKUNTZA-GIDA | | 2014/15 |
| Ikastegia | 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Zikl. Zehaztuqabea |
| Plana | GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua | Ikastaroa 2. maila |
| IRAKASGAIA | | |
| 26715 - Termodinamika eta Zinetika Kimikoa | | ECTS kredituak: 6 |
| GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK | | |
| <p>Irakasgai honetan zinetikaren eta termodinamika kimikoaren oinarriak lantzen dira, hala nola, disoluzioango oreka ionikoak ere.</p> <p>Gaintasun espezifikoak</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Substantzia mota desberdinen erreakzio kimikoaren teoria basikoaren eta printzipioen ulermena eta erabilera. 2. Laborategian ohikoak diren tekniken eta baliabideen erabilera segurua. 3. Kimikako eta beste zientzia esperimentalen eremuetako emaitzen aurkezpenerako, analisirako eta behatzerako ahalmena. 4. Literatura zientifikoaren erreferentzia-estiloen ezagumendua eta erabilera ahozko eta idatzizko komunikazioan 5. Zientzia esperimentaletako ohiko dokumentazioa eta iturriak ezagutu, eta haien erabilera eraginkorra frogatu. <p>Zeharkako gaitasunak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Analisi- eta sintesi- ahalmenak garatzea, bai erabakiak hartzeko eta bai informazioa elaboratzeko eta transmititzeko. 2. Lan-taldea ahalbidetzen duten pertsonen arteko harremanak garatzea eta arrazionamendu kritikoan areagotzea. 3. Ikaskuntza jarraitu eta autonomorako tresnak eskuratzea, eta hori ahalbidetzen duen jarrera positiboa mantentzea. | | |
| GAI ZERRENDA | | |
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Termokimika. Termodinamikaren lehen printzipioa. Barne-energia eta entalpia. Erreakzio-entalpiak eta formazio-entalpiak. Hess-en legea. Formazio-entalpia estandarrik. Lotura-entalpiak eta lotura-energiak. 2. Entropia eta Gibbs-en energia askea. Entropia kontzeptua. Entropia maila molekularrean. Termodinamikaren bigarren printzipioa. Gibbs-en energia askea. Gibbs-en energia askearen aldakuntza eta erreakzioen espontaneitatea. Hirugarren printzipioa. 3. Oreka kimikoa Energia askea eta oreka-konstantea. Orekan eragina duten faktoreak. 4. Substantzia bakarreko sistemen fase-oreka Likido-bapore oreka. Solido-likido oreka. Solido-bapore oreka. Fase-diagramak. 5. Zinetika kimikoa. Erreakzio-abiadura. Erreakzioaren abiadura-ekuazioak eta ordena. Kontzentrazioen aldaketa denboraren zehar. Erreakzio-abiaduraren menpekotasuna tenperaturarekin. 6. Disoluzioak eta disoluzioen propietateak. Disoluzio-motak. Konposatu anitzen sistemak. Disoluzio ez-idelak. Aktibitatea eta aktibitate-koefizientea. Elektrolitoen disoluzioak. Disoluziango orekei sarrera. 7. Azido-base orekak. Uraren biderkadura ionikoa. Disoluzio neutroak, azidoak eta basikoak. pH-aren kontzeptua. Azido eta base ahulak eta sendoak: Ka eta Kb. Azido poliprotikoak. Adierazleak. Azido-base erreakzioak. Balorazioak. Disoluzio indargetzaileak. Ahalmen indargetzailea. Interes biologikodun aplikazioak. 8. Konplexuen formazio-orekak. Ioi konplexuak eta koordinazio-konposatuak. Konplexuen egonkortasuna eta oreka-konstanteak. 9. Disolbagarritasun-orekak. Hauspeatze-erreakzioak. Disolbagarritasuna eta disolbagarritasun-biderkadura. Disolbagarritasunean eragina duten faktoreak. 10. Oxidazio-erreakzio orekak. Erredox erreakzioak eta elektrodo-potentziala. Zelula galvaniarrik. Nernst-en ekuazioa. Erredox sistema biologikoak. Erredox oreka-konstantearen kalkulua. Oreka potentziala. Baldintzazko potentziala. Erredox orekaren aplikazioak. | | |

Laborategiko Praktiak:

- 1.- Neutrizazio- eta Disoluzio-Entalpiak
- 2.- Disoluzio Indargetzailearen Prestaketa. Tanpoi-ahalmena eta Tenperaturaren Eragina

IRAKASKUNTZA MOTAK

| Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
|---|----|---|----|----|----|-----|----|----|-----|
| Ikasgelako eskola-orduak | 36 | | 16 | 8 | | | | | |
| Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 54 | | 24 | 12 | | | | | |

Legenda:

M: Maistrala S: Mintesia GA: Gelako n. GL: Laborategiko n. GO: Ordenagailuko n.
 GCL: P. klinikak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa n.

Argibideak:

Gelako praktikan galdera teorikoen eta problemen ebazpena lantzen da.

Laborategiko praktikak egitea derrigorrezkoa da.

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Taldeko lanak

Argibideak:

EBALUAKETA

Ebaluaketa misto izango da.

Batez ere aspektu hauek ebaluatuko dira:

- Edukien ezagutzearen gradua
- Ariketeetan eta problemeetan lortutako emaitzak analizatzeko eta eztabaidatzeko ahalmena
- Arrazonamenduen argitasuna

Horretarako zeregin hauek ebaluagarriak izango dira:

- zeregin presentzialetan asistentzia aktiboa
- zeregin ez-presentzialak jarraipena
- planteatutako problemen ebazpena
- eskatzen diren lanak entregatzea
- azterketa teorikoak egitea

Emaitza finala era honetan lortzen da:

- Azterketa finala %60 (nota minimoa: 4)
- Laborategiko praktikak %10 (derrigorrezkoa)
- Egin behar diren lanak %30

Laborategiko praktiken eta egin behar diren lanen emaitzak ez-ohiko deialdirako gordeko dira.

Ikasleak frogaraz bakar batez ebaluatua izatea nahi badu, kurtsoaren lehenengo 10 egunetan irakasleari esan beharko dio. Froga final hori azterketa teoriko zein praktiko izango da eta biak gaitutako behar dira (nota minimoa 5). Emaitza finala azterketa teorikoarena %80 eta praktikoa %20 izango da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

- Klase magistralak emateko behar den oinarritzko materiala Moodle plataforman dago.
- Ariketa bilduma bat emango da gelako praktikak eta ebaluatuko diren lanak egiteko.
- Praktikak egiteko protokoloa eskuragarri izango da non, beste atalen artean, ikasleek erantzun behar dituzten galderak baitaude.
- Laborategiko praktikak egiteko bata eta betaurrekoak beharrezkoak dira.

BIBLIOGRAFIA

Oinarritzko bibliografia

- R.H. Petrucci, W.S. Harwood y F.G. Herring, Química General, (8ª Ed.), Prentice Hall, Madrid, 2003
- UEUKo Kimika Saila "Kimika Orokorra". Udako Euskal Unibertsitatea, 1996.
- P. Atkins, L. Jones: Principios de Química, Ed. Panamericana, 3ª ed., 2009.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- P. Atkins, J. de Paula: Physical Chemistry for the Life Sciences, Ed. Oxford Univ. Press, 3^a ed., 2006.
- N.C. Price, R.A. Dwek, R.G. Ratcliffe, M.R. Wormald: Principles and Problems in Physical chemistry for Biochemists, Oxford, 3^aed, 2001
- I. R. Levine, Fisicoquímica, vols. 1 y 2. 5^o ed. Ed. Mac Graw Hill (2004).
- M. Silva, J. Barbosa, Equilibrios Iónicos y sus Aplicaciones Analíticas, Síntesis, 2002.
- R.J.Silbey, R.A.Alberty, Kimika fisikoa, Servicio editorial UPV/EHU, 2006.
- Daniel C. Harris, Análisis Químico Cuantitativa, ed. Reverté, 3^a ed,
- I.Urretxa, J.Iturbe, Kimikako Problemak, Udako Euskal Unibertsitatea, 1999.
- N. C. Price, et al.: Principles and Problems in Physical Chemistry for Biochemists, Ed. Oxford Univ. Press, 3^a ed.

Aldizkariak

Journal of Chemical Education

Interneteko helbide interesgarriak

<http://webbook.nist.gov/chemistry/>
<http://www.chem1.com/acad/webtext/virtualtextbook.html>

| | | | | | | | | | | |
|---|--|------------------------|--------------|-----------|-----------------|-----------|---------------------|-----------|----------------------|------------|
| IRAKASKUNTZA-GIDA | | 2014/15 | | | | | | | | |
| Ikastegia | 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Zikl. | Zehaztuqabea | | | | | | | |
| Plana | GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua | Ikastaroa | 2. maila | | | | | | | |
| IRAKASGAIA | | | | | | | | | | |
| 26720 - Makromolekulen Biosintesia eta Erregulazioa | | ECTS kredituak: | 6 | | | | | | | |
| GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK | | | | | | | | | | |
| <p>Geneen informazioa transmititzeko dauden prozesuen oinarri molekularrak ezagutaraztea da ikasgai honen helburu nagusia. Ikasgai honetan funtsezkoak diren DNAREN erreplikazioa eta konponketa, transkripzioa eta itzulpena aztertuko dira, baita ere geneen espresioaren erregulazioaren ikuspegi integratua.</p> <p>Gaitasunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prokarioto zein eukariotoetan informazio genetikoaren transmititzeko, aldatzeko eta erregulatzeko mekanismo molekularrak deskribatzea. | | | | | | | | | | |
| GAI ZERRENDIA | | | | | | | | | | |
| <p>Geneak eta kromosomak Kromosomen egitura. Kromatina. Nukleosoma. Histonak. DNAREN paketamendu maila desberdinak. DNAREN superbiribikapena. Topoisomerasak.</p> <p>DNAREN metabolismoa DNAREN erreplikazioa. Ezaugarri orokorrak. DNA polimerasak. Erreplikazioaren urratsak eta mekanismoa. Erreplikazioa eukariotoetan.</p> <p>DNAREN konponketa. Mutazioak. Konponketa sistemak: parekaketa okerrekin konponketa, base-eszizioaren bidezko konponketa, nukleotido-eszizioaren bidezko konponketa, konponketa zuzena, birkonbinaketa bidezko konponketa, SOS erantzuna.</p> <p>DNAREN birkonbinaketa. Birkonbinaketa genetiko homologoa. Birkonbinaketa guneezpezifikoak. DNAREN transposizioa.</p> <p>RNAren metabolismoa Transkripzioa. RNA motak. Transkripzioa prokariotoetan. RNA polimerasa. Transkripzioaren urratsak. Promotoreak eta amaitzaileak. Transkripzioa eukariotoetan. RNA polimerasak. Transkripzio faktoreak. Transkripzioaren inhibitzaileak. RNAren prozesamendua. mRNAren muturren prozesamendua. Moztitsasketa. Prozesamendu alternatiboa. rRNA eta tRNAren prozesamendua. Erribozimak. Orrazketa.</p> <p>RNAk zuzenduriko RNAren eta DNAREN sintesia. Alderantzizko transkriptasa. Erretrovirusak. Telomerasa. RNA erreplikasa.</p> <p>Proteinen metabolismoa Kode genetikoak. RNAren itzulpena. Erribosoma. tRNA. Proteinen sintesiaren urratsak: aminoazidoen aktibazioa, hasiera, luzapena, amaiera, tolestura eta itzulpen ondoko prozesamendua. Proteinen sintesiaren inhibitzaileak. Proteinen ituraketa eta degradazioa. Seinale-sekuentziak. Jariatutako proteinak. Nukleorako garraioa. Proteinen degradazioa. Ubikitinazioa. Proteasoma.</p> <p>Gene-espresioaren erregulazioa. Transkripzioaren erregulazioa prokariotoetan. Promotoreak. Sigma faktoreak. Proteina erregulatzailerak. Operonak. Antiamaiara. Moteldura. Transkripzioaren erregulazioa eukariotoetan. DNAREN eskuragarritasuna: kromatinaren birmoldaketa. Promotoreak eta sekuentzia erregulatzailerak. Proteina erregulatzailerak, koaktibatzaileak. Transkripzioaren ondoko erregulazioa: prozesamendu alternatiboa, itzulpenaren erregulazioa, mRNAren degradazioaren erregulazioa.</p> | | | | | | | | | | |
| IRAKASKUNTZA MOTAK | | | | | | | | | | |
| | Eskola mota | M | S | GA | GL | GO | GCL | TA | TI | GCA |
| | Ikasgelako eskola-orduak | 42 | 4 | 11 | | 3 | | | | |
| | Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord. | 63 | 6 | 16,5 | | 4,5 | | | | |
| Legenda: | M: Maistrala | | S: Mintegia | | GA: Gelako o. | | GL: Laborategiko o. | | GO: Ordenagailuko o. | |
| | GCL: P. klinikoa | | TA: Tailerra | | TI: Tailer Ind. | | GCA: Landa o. | | | |
| Argibideak: | | | | | | | | | | |
| EBALUAZIOA | | | | | | | | | | |

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Test motako azterketa idatzia
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

Ebaluazioak bi atal ditu:

- 1) Test motako galderak eta galdera laburrez osotutako banakako azterketa idatzia. Nota osoaren %80 da eta ikasgaia gaitzitzeko azterketa gaitzitu behar da.
- 2) Nota osoaren %20 diren banakako zein taldeko lanak eta mintegietako aurkezpenak.

Notak ikasturte bereko deialdietan gordeko dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

-

BIBLIOGRAFIA

Oinarritzko bibliografia

- Lehninger Principles of Biochemistry (2008) 5th ed. Nelson DL & Cox MM. W. H. Freeman
- Biochemistry (2011) 7th ed. Berg JM, Tymoczko JL & Stryer L. W. H. Freeman
- Biochemistry (2010) 4th ed. Voet D & Voet, JG. John Wiley & Sons, New York.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Molecular Biology of the Cell (2008) 5th ed. Alberts A, Johnson A, Lewis J, Raff M, Roberts K & Walter P. Garland Science
- Molecular Cell Biology (2012) 7th edition. Lodish H, Berk A, Kaiser CA, Krieger M, Bretscher A, Ploegh H, Amon A & Scott MP. W. H. Freeman

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://bcs.whfreeman.com/lehninger5e/>
- <http://bcs.whfreeman.com/berg7e/>
- <http://bcs.whfreeman.com/lodish7e/>

| | | |
|--|--|---------------------------|
| IRAKASKUNTZA-GIDA | | 2014/15 |
| Ikastegia | 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Zikl. Zehaztuqabea |
| Plana | GBIOQU30 - Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua | Ikastaroa 2. maila |
| IRAKASGAIA | | |
| 26856 - Metabolismoaren Erregulazioa | | ECTS kredituak: 6 |
| GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK | | |
| <p>Irakasgai honetan ikasleak energia kontzeptua landuko du metabolismoan gertatzen diren erreakzio entzimatiokoekin lotuta, eta karbohidrato, lipido, proteina eta nukletidoen bide kataboliko zein anabolikoen entzima erregulatzaileen jardura katalitikoetan agertzen diren mekanismo erregulatzaileak aztertuko ditu. Bestalde, gorputzeko organo eta ehun desberdinetako zelulen arteko harreman metaboliko guztien berri izango dute, eta esangura metaboliko berezia duten egoera patologikoetako erregulazioa aztertuko dute: diabetesa (I eta II motak), ateriosklerosia, obesitatea eta bestelako gaixotasun metabolikoak.</p> <p>Estres metabolikoa eragiten duten muturreko egoeretan ere metabolismoaren erregulazioko mekanismoak ikusiko dira (barau luzean eta baraurako moldatze-prozesuan, energia-erreserbaren mobilizazio azkarra behar denean, ariketa fisiko aerobiko eta anaerobikoan).</p> <p>Azkenik, zelulen ugalketa eta heriotza ikusiko dira.</p> <p>IRAKASGAIAAREN HELBURUA: Metabolismoaren bide nagusien eta haien erregulazioaren ikuspegi orokorra lortzea</p> | | |
| GAI ZERRENDA | | |
